

Independentzia



ANTTON OLARIAGA



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA

Independentzia oso gauza ona da. Egoera, eta baldintza guztietan. Beti. Ez dut uste horretaz zalantza egin daitekeenik, baina norbaitek hala egin nahi balu, aski luke *independentziari* kontrajartzen zaion *dependentzia* hitzaren esanahiari une batez erreparatzea, horretaz ohartzeko. Denok dugu burujabetza nahiago, ezta? Bada, horixe. Independentzia nahi izateak beti duela dependentzia egoera bat salatzen, eta hori horrela izate hutsagatik, zentzugabea dela independentziaren balizko onura edo kalteari buruz eztabaida planteatzea ere.

Bai, balio preziatua da independentziarena, horrek baino ez baitigu ahalbidetzen libre bizitzea, edo gauza bera dena, geure buruaren gidaritza geuk ez beste inork edukitzea. Baieztapenak, noski, berdin balio du pertsonentzat nola herrientzat. Nazioa, azken finean, pertsonaren dimentsio kolektiboa baino ez delako, gure berezko talde-izaeragatik, gizakiok naturalki hartzen dugun konfigurazio soziala. Maila indibiduallean nola nazionallean, askatasuna da bizitza duinaren lehen baldintza, eta horrexegatik hain zuzen, beren lurraldean libre bizi ahal izatea da herri guztiek beren politikari ezartzen dioten lehen

zeregina. Independentzia nazionala defendatzea, libre diren herrientzat. Eta berreskuratzea, galdu dutenen kasuan.

Independentziaren inguruan ez dago benetako debaterik, tranpa duen eztabaida interesatua baizik. Izan ere, erabat absurdoa da norbaiti bere nazioaren independentziaren alde edo kontra dagoen galdetzea. Eta bere nazioa ez denaren inguruan iritzirik edukitzea ere ez dagokionez, kito: hor bukatua da gaiari buruzko balizko eztabaida oro. Independentziaren kontra daudela diotenentzian, guri ziria sartzeko duten interesa baino ez dago. Jo dezatela bestela beren nazio jadanik independenteengana, independentziak omen dakartzan zoritxar guztiei buruzko beren argudioekin, independentziari uko egin behar diotela konbentzitzera, edo exijitzera. Egia baldin bada independentzia hain gauza txarra iruditzen zaiela, hala egin beharko lukete, ezta? Zergatik ez, orduan?

Gezurra delako. Mugen zentzugabekeriak konbentzitu nahi gaituzten horietan berak dira. Gure nazionalitateari uko egin diezaiozun, munduko hiritartasunarena bezalako kea saltzen dutenak. Estatu propioa edukitzeak dakartzen onurei buruz zalantza egin dezagun saiatzen direnak. Edo nazioarteko po-

litikaren oinarria arazo nazionala dela ongi badakiten arren, euskaldunok politika nazionala egitea beste balore batzuekin kontraesanean dagoela sinets dezagun hain tematuta daudenak. Konplexua izan dezagun atzerakoiak izateagatik, edo burgesak, edo identitarioak, edo hizkuntza-inposatzaileak, edo askak zer beste klasetako bekatariak.

Betiko nazionalistak dira. Beren boterearen monopolioa bestean askatasunaren ukameneari oinarritzen segitzen dutenak. Mendean harturik dauzkaten herrirentzat, asimilazioa eta likidazioa beste helbururik ez dutenak. Gure independentziarako bidea ezkutatzaren saiatzen direnak. Mozorroarekin ala gabe, aspalditik hain ezagunak zaizkigun imperialistak.

Horregatik, harritzeko edo asaldatzeko arrazoi ere ez lukete honezkero gurean izan behar. Niri, orain, herriaren ustezko klase politikoak jendilaje horrekiko duen konplizitatea zait benetan harritzekoa. Beraien ideologiarikiko erakusten duen enpatia eta iragazkortasuna, edota gure etorkizuna horien eskutik baino ez planteatzearen akatsa behin eta berriz errepikatzeko duen tema. Kezkagarria, baina batez ere, salatzekoa. ●